



BALIO PROPOSAMENA

Hiru bazkideez osatutako enpresa bat gara, eta bi erabilpen dituen aparatu bat sortu dugu:

1. Pertsona askok izan ohi dute sukaldatzeko denbora gutxi edo gogo eza, horretarako sortu dugu gure produktua, jendearentzat eroso eta erabilgarria den zerbaiteko, jendeari laguntzeko helburuarekin: Kroketa egiteko gailu bat da, eta denbora murriztu batean eta modu eroso batean sukaldatzeko aukera ematen du.
2. Gainera, erabilera bat baino gehiago duenez, garbitu ez gero, jostailu moduan ere erabili daiteke, skalextrik bat bezala.

Produktu berritzailea da inork ez duelako gure produktuaren antzeko zerbaitekin egin, eta honek zenbait abantaila ematen dizkio gure produktuari:



- **Berezia eta bakarra:** Produktu berezia eta bakarra da, izan ere, gure ideiarekin inguruan egindako bilaketetan, ez da agertzen antzeko edo berdina den produkturik.
- **Erosoa:** Muntatzeko eta desmuntatzeko oso erraza da, ez du zailtasunik eta edonon jarri daiteke. Garbitzeko orduan, ontzi-garbigailuan sartu daiteke inongo arazorik gabe.
- **Jasotzeko erraza:** Gordetzeko orduan, ez du leku asko okupatzen eta pisuari dagokionez nahiko arina da, horregatik, nahi den lekuan gorde daiteke.
- **Arriskurik gabea:** Polimeroz osatutako produktua denez, ez du arriskurik, ez du mozteko arriskurik, izan ere, ez du arista zorrotzik. Erori ez gero, mina egiteko aukera oso txikia da.
- **Material gogorra:** Erorketa baten aurrean, materiala ez da lehengoan hautsiko, bere propietateei esker, oso gogorra delako. Garbitzeko ere ez dago arazorik, produktu kimikoak ez du materiala kaltetuko.





3 SALUD
Y BIENESTAR



Gure produktuari esker, planeta zainduko dugu. Produktu honekin lortu duguna gure bizitza osasuntsuagoa izatea. Etxean egiten diren produktuak beti hobetoak izango dira, kanpoan erosten ditugunak baino. Kanpoko janaria prozesatua denez gure osasunarentzako kaltegarria izan daiteke.

12 PRODUCCIÓN
Y CONSUMO
RESPONSABLES



Gure produktua material birziklatuz egin dago, naturari laguntzeko helburuarekin.